

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA DEBAGOIENA,
DEBABARRENA, SAN MARKOS, SASIETA, UROLA
ERDIALDEA, UROLA KOSTA ETA TOLOSALDEA
MANKOMUNITATEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA,
GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA ERATZEKO.**

Donostian, 2007ko Marxtoaren 14an

BILDU DIRA

Alde batetik, Luis Maria Oyarbide jauna, Garapen Iraunkorrerako foru diputatua, Diputatuen Kontseiluak 2007ko martxoaren 13an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Jose Luis Valles jauna, Debabarrena mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2007ko martxoaren 7an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Arritxu Oliben andrea, Debagoiena mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Gobernu Juntak 2007ko otsailaren 28an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Fermin Lorza jauna, San Markos mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2007ko otsailaren 28an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Pello Garaialde jauna, Sasieta mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Batzar Errektoreak 2007ko otsailaren 28an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Julian Eizmendi jauna, Urola Erdialdea mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2007ko otsailaren 27an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Javier Zarraonaindia jauna, Urola-Kosta mankomunitateko lehendakaria, Udal Elkarteko Batzar Nagusiak 2007 otsailaren 20an erabakitako akordioaren indarrez.

Bestetik, Bakartxo Tejeria andrea, Tolosaldea mankomunitateko lehendakaria, Mankomunitateko Batzarrak 2007ko otsailaren 26an erabakitako akordioaren indarrez.

PARTE HARTU DUTE

Guztiek ere dagokien karguen berariazko funtzioak betez, eta elkarri honako Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortuz; eta xede horrekin

AITORTU DUTE

1.- Bat datozela Gipuzkoako lurralde historikoko hiri hondakinen kudeaketari buruz Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2006 Plan Orokorrean jasotako diagnostikoarekin; eta bereziki, hondakin horiek etorkizunean kudeatzeko eredua zehazteari buruz dioenarekin; horretarako, hiru printzipio nagusi hauek ezartzen ditu:

- 1º Ahalik eta hondakin gutxien sortzea (prebentzioa).
- 2º Zaborrak jada sortu badira, izan ditzaketen baliabideak ahalik eta gehien baliozkotzea zabor horiek birziklatuz, konpostatuz eta energia berreskuratzeke moduan erraustuz.
- 3º Zabortegetan ahalik eta zabor gutxien biltzea eta, betiere, ingurumen berme handienekin; eta, lehen mailako zaborrek izan ditzaketen baliabideak (lehengaiak eta energia) baliatzeko edota eragin dezaketen arriskua arintzeko tratatu ostean ondorioztatutako bigarren mailako zaborrak bakarrik biltzea.

Era berean, hitzarmen hau izenpetzen duten entitateek bere gain hartzen dute hiri hondakinen bideraketa-sarean jasotako hondakinen tratamendurako azpiegituren eraikuntza. Zehazki, honako printzipio hauek gauzatzeko beharrezkoak direnak:

- bereizita bildutako zabor organikoak konpostatzea.
- “Gerakina” esaten zaion hori, hau da, saihestu, birziklatu edo konpostatu ezin diren hondakinak erraustuz, energia berreskuratzea. Eta, errausketarako azpiegitura martxan jarri arte, gerakin hori zabortegetan tratatu ahal izateko irtenbideren bat finkatzea.

2.- Bat datozela Gipuzkoako Lurralde Historikoko mankomunitateetako hiri hondakinen bideraketa sarearen kudeaketa-premiei erantzuna emango dien antolakuntza administratibo gisa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa berehala eratu beharrezkin. Eta horretarako, abiapuntutzat hartzea udalei dagokiela hiri hondakinak kudeatzeko legezko erantzukizuna eta obligazioa, betekizun hori mankomunitateen bitartez gauzatuz.

3.- Gai honetan eskumena duten erakunde publiko desberdinen arteko lankidetzara osatuko dutela, Gipuzkoako Lurralde Historiko osorako konponbide bat martxan jarritz, hau da, hiri hondakinen kudeaketa orokorrak eragiten dituen hurbileneke arazoei adostutako irtenbide bat emateko neurriak eta ekimenak martxan jarritz.

AURREKARIAK

1.- Gipuzkoako hiri hondakin solidoen plan zuzendaria 1982. urtean onartu zen, honako helburu hauekin:

- Hondakinen kontrolik gabeko isurketa ezabatzea.
- Hiri hondakinak eskualdez eskualde kudeatzea, mankomunitateak eratuz eta kontrolpeko zabortegiak ezarriz.

2.- 2002. urtean Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra onartu zen, hiri hondakinen kudeaketari esker herritarrek kalitateko zerbitzua jaso zezaten, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan ahalik eta kalitate zein kostu berdina izango duen eta ingurumenaren babes mailarik handienak lortuko dituen zerbitzua, alegia, betiere indarrean dagoen legeriak nahiz garapen iraunkorreko printzipioek ezarritako baldintzak beteko diren moduan.

3.- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra berretsi zenetik, mankomunitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, elkarlanean, plan horren helburuak lortzera bideratutako hainbat ekimen abiarazi dituzte, zaborren sorrera minimizatuz, hau da, prebentzioa sustatuz, eta birziklatzea nahiz konpostatzea areagotuz; eta, gaur egun martxan dauden zabortegien bizialdi erabilgarria bukatzeaz dagoenez, hiri hondakinen bideraketa sarea kudeatzeko arazoari konponbide orokorra emateko beharrezkoak diren azpiegiturak finkatuz. Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak, azpiegiturak planifikatzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko dagozkion eskumenak erabiliz, hainbat azterlan eta txosten egin ditu azken urte hauetan, Hitzarmen honen I. eranskinean aipatzen direnak, hain zuzen ere.

4.- Ekimen horien ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalak eta Debagoiena, Debarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek Lankidetzaren Hitzarmena izenpetu dute, Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizuna zehaztearren.

5.- Hitzarmen horretan finkatutako lehen konpromisoa eta nagusia izan da Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioa eratzea, honako Hitzarmen honen bidez gauzatuko dena, hain zuzen ere.

6.- Aipatutako Hitzarmen horretan finkatutako bigarren konpromisoa, hau da, Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren ardatz nagusia izango den konpromisoa, alegia, Donostiako udal barrutian Energia Berreskuratuko duen Errauste Planta eraiki eta martxan jartzea da. Eta planta horrek, oinarritzko planteamendu hauei jarraitu beharko die:

- Atmosferara egiten diren jaulkipenak ahalik eta gehien murriztea, hondakinak errausteari buruzko araudiak ezarritako jaulkipen mugak zorrotz betetzeaz haratago, zehazki 2000/76 Arteztarauak eta 653/2003 Errege Dekretuak aurreikusitako betekizunak gaindituz. Eta horretarako, eskueran dauden teknologiarik aurreratuenak erabiliko dira.
- Behar hainbateko errauste ildo ezartzea, Gipuzkoan sortzen den zabor gerakin guztiaren aurretratamendua moduluka gauzatu ahal izango den moduan, plantaren erabilgarritasun eragileena emango duen bidea hobetsiz.

- Behar hainbateko gaitasuneko tratamendu ildoak diseinatzea, Gipuzkoan sortzen den zabor gerakin guzti-guztia aurretratu ahal izango den moduan, baita plantan aurreikusitako eta aurreikusi gabeko geldialdiak gertatzen direnean berehala tratatu ezin diren eta, ondorioz, enbalatuta gorde behar diren gerakinak ere, hau da, aldi baterako biltegiatu eta, instalazioa berriro martxan jartzen denean, hurrengo hilabeteetan pixkaka-pixkaka errausteko gordetzen direnak, alegia.
- Beraz, errauste planta horretan, aurreikusitako eta aurreikusi gabeko geldialdiak gertatzen direnean harrerako hobian kabitzen ez diren hondakinak enbalatzeko instalazio bat aurreikusi beharko da, hondakin horiek errauste planta bere ohiko martxara itzultzean tratatzeko.
- Horrela bada, Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko sistema hori atzean zabortegei premiarik izango ez duen moduan diseinatu beharko da, bai hondakinen gerakinari dagokionez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean jasotako printzipio bat aplikatuz –lehen mailako hondakinen edo aurretratu gabeko hondakinen zero isurketa lortzea–, baita bereizita bildutako hondakinen tratamendurako plantek baztertutako zatiei dagokienez ere.

7.- Era berean, Hitzarmen honen eraginpean ipini diren entitateak bat datoz Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan materia organiko biodegradagarriaren tratamendu biologikoa ezarri behar dela esatean; eta horretarako, konpostatzeko zenbait planta eraikiko dira oinarritzko planteamendu hauei jarraituz:

- Planta horiei esker materia organikoa Lurralde osoan bereizita bildu ahal izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Konpostatze Programan ezarritakoaren arabera. Hori horrela, aurreikusi da Donostialdean konpostatzeko planta bat eraikitzea eta, bidezko bada, *Lapatxeko* zabortegean (*Azpeitia*) aurreikusita dagoen eta urtean 3.500 tona biltzeko gaitasuna izango duen planta pilotua finkatzea. Gainera, *Lapatxeko* zabortegearen antzeko edukiera izango duen hirugarren planta ezartzea aurreikusi da, *Goierri* aldean hain zuzen.
- Konpostatzeko planta horiek hiri hondakinen bideraketa sareko azpiegituretat joko dira eta sare hori, etorkizunean eratuko den Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak kudeatuko du.
- Planta horiei esker irtenbidea emango zaio bai etxeetan eta bai sorgune handietan sortu eta bereizita bilduko den materia organiko biodegradagarri guztiari.
- Hitzarmen hau izenpetu duten entitateen asmoa da zabortegeira edo erraustegira bideratutako hondakin horietatik ahalik eta materia organikorik gehiena bereiztea (maneatua ala gordina, landare nahiz animalia jatorrikoak) eta dagokion tratamendu biologikoa ematea, hondakinen kudeaketa orokorreko ereduaren ezarritako eragimen eta iraunkortasun printzipioei eutsiz.

Hitzarmena izenpetu duten entitateak, Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko sistema era egokian garatzeko konpromisoa hartu dute bere gain; hau da, aipatutako hondakinak tratatzeko azpiegiturek titularitate publikokoak izango dira, edo partaidetzarik handiena publikoa izango da behintzat, hori baitio Gipuzkoako Hiri

Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra onartzeko prozesuan deitutako herritarren partaidetzazko saioaren ondorio nagusienetako batek.

Aurrekari horiek guztiak aintzat hartuta, esku hartzaileek honako Lankidetzazko Hitzarmena izenpetu dute, oinarritzat jarri honako

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da, hiri hondakinen bideraketa sarea elkarlanean antolatu, gauzatu eta kudeatuko duen Kontsorzioa eratze aldera sinatzaileek duten asmoa agerian jartzea, halakotzat hartuta 2002-2016 epealdirako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusita dauden eta Kontsorzio entitate bat baino gehiago zerbitza ditzaketen azpiegiturak sortzeko eta ustiatzeko behar diren jarduerak guztiak. Honekin batera doan Estatutu proposamenean deskribatu dira.

Hitzarmen honek agerian uzten du, beraz, alde guztien nahia mankomunitateak Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren jardule nagusi gisa finka daitezkeen, bere bi ardatzetan: hondakinen bideraketa sarea kudeatzeko Hondakinen Kontsorzioan izango duten ordezkariaren bidez egituratuko den ardatza; eta mankomunitate bakoitzaren estatutuetatik ondorioztatzen dena, hau da, hondakinen kudeaketarekin lotutako gainerako jardueretan beteko dituzten eginkizunek osatuko dutena.

BIGARRENA.- EKARPENAK.

Kontsorzioa osatzen duten entitateek haren eraketa eta funtzionamendurako beharrezkoak diren ekarpenak ordainduko dituzte Batzar Nagusian duten ordezkariaren portzentajearen arabera, eta salbuespen bakarra izango da bigarren paragrafoan jasotzen den konpromisoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ekonomikoki lagunduko du errauste plantaren, konpostatze planten eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako gainerako azpiegituren eraikuntzan. Ekarpen hori, Kontsorzio gobernu organoetan botoen bidez duen ordezkariaren portzentajearen arabera izango da. Ordezkari hori, agiri honekin batera doan Estatutu proposamenean ikus daiteke.

Kontsorzioak, halaber, bere gaitasun finantzario propioetik etor daitezkeen baliabide ekonomiko eta finantzario osagarriak izango ditu.

Aipatutako ekarpen ekonomikoaz aparte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa da Legazpin dagoen ontziak bereizteko eta sailkatzeko planta Hondakinen Kontsorzioaren esku uztea, hondakinak bideratzeko azpiegitura sarean sar dezan.

HIRUGARRENA.- JARDUKETA PROGRAMA.

Kontsortzioa eraten denean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizuna zehaztearren egindako Lankidetza Hitzarmenean jasotako zehaztapenak aplikatuko dira hondakinen bideraketa sarearen kudeaketan.

Hitzarmen horretan jasotako konpromisoak bete ezean, hala eskatzen duen entitateak Kontsortzioa uzteko eskubide osoa izango du, honekin batera doazen estatutuetao 32. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

LAUGARRENA.- KONTSORTZIOKO BATZARREAN PARTE HARTZEA.

Kontsortzioko kide izango diren entitateen iritziz aparteko garrantzia du Batzar Orokorraren eraketan pluraltasuna bermatzeak eta batzarkideak aukeratzeko sisteman entitate guztien berdintasuna ziurtatzeak.

Hori horrela, mankomunitate bakoitza ordezkatzeko duten batzarkideak entitate horietako Batzarrek prozedura berberari jarraituz aukera ditzaten erabaki dute. Hasierako bozketa bakar batean batzarkide bakoitzak proposatutako izangaien artetik bi bozkatu ahal izango ditu eta era horretan akordio proposamen bat osatuko da boza gehien jaso dituzten hiru izangaien izendapena bultzatuz. Akordio proposamen hori mankomunitate bakoitzak erabakiak hartzeko ezarria duen araubidearen arabera onartu beharko da.

BOSGARRENA.- KONPROMISO PARTIKULARRAK.

Entitate kontsortziatuak berariaz aitortu dutenaren arabera, hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzuak elkarren artean koordinatuz gauzatzeko dituzte, harik eta Kontsortzioak hiri hondakinen bideraketa sarea kudeatzeko zerbitzuak martxan jarri arte.

Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek izenpetutako Lankidetza Hitzarmenean aurreikusitako hondakinen bideraketa sarearen kudeaketarako beharrezkoak diren azpiegiturak sortzeko konpromisoak errespetatuko dira.

Debabarrena, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateak zerbitzatzeko dituzten transferentzia-estazioak Kontsortzioaren kontura eraikiko dira.

2009ko uztailaren 17tik aurrera, Akei transferentzia-estazioaren titularitatea eta kudeaketa Kontsortzioaren esku geratzeko dira, laugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan. Egun horretatik aurrera Kontsortzioa arduratuko da Debagoiena eskualdeko hiri hondakinen bideraketa sarearen transferentzia eta garraioaz. Akei plantaren bizialdi erabilgarria bukatzen denean, Kontsortzioak oraingo planta birmoldatzeari ekingo dio; edo bestela, planta berria eraikiko du Debagoiena eskualdean.

SEIGARRENA.- KONTSORTZIOAREN ETA UDALEN ARTEKO HARREMANAK.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeari dagokionez, mankomunitateei dagokien egitura administratiboa izango dute entitate kontsortziatuek; eta, udalerrri batek entitate kontsortziatutako horietako edozeinetatik bereiztea eta Kontsortzioan txertatzea erabakiko balu, edota Kontsortzioak hiri hondakinen gaiarekin lotutako zerbitzuren bat ematea nahiko balu, horrek Kontsortzioa eratzeke erabili den egitura aldatu beharra ekarriko luke.

Horrela bada, udalerriren bat Kontsortzioan sartu ahal izateko, entitate kontsortziokide guztien adostasuna beharko da; eta gainera, estatutuak aldatu egin beharko dira, Kontsortzioaren egitura errealitate administratibo berri horretara egokitzeke.

Kontsortzioak bi aukera izango ditu udalerrriak zuzenean zerbitzatzeko: udalerrri jakin bati dagokion mankomunitateak horretarako Lankidetzaz Hitzarmena onartzea, estatutuak 15.2 artikuluan ezarritako gehiengo bikoitzaz; edo bestela, entitate kontsortziatu guztien erabateko adostasunez, udalerrri hori mankomunitate orotatik kanpo balego.

Horrelakoetan, Kontsortzioak bermatu beharko du emandako laguntza horretatik ondorioztatzen diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak laguntza jaso duen entitateari egotziko zaizkiola. Era berean, entitate kontsortziatuen artean berdintasunaren printzipioari eutsiz, Kontsortzioak bermatu beharko du kontsortziatutako entitate guztiek era horretako hitzarmenak adosteko eskubide bera izango dutela.

ZAZPIGARRENA.- KONTSORTZIOKO KIDE DIREN ENTITATEEI LAGUNTZEKO LANKIDETZA HITZARMENAK.

Mankomunitateek, hiri hondakinekin lotutako zerbitzuak emateko lankidetzaz hitzarmenak egin hala izango dituzte Kontsortzioarekin, baina hitzarmen horiek Kontsortzioko Estatutuen 15. artikuluan ezarritako gehiengoaz onartu beharko dira. Hitzarmen horietan, mankomunitate bakoitzak bere kudeaketa-egitura materialak eta pertsonalak Kontsortzioaren esku uztea aurreikusi ahal izango du, baldin eta egitura horiek, zuzenean edo zeharka, zerbitzuarekin zerikusia badute.

Adosten den Lankidetzaz Hitzarmenean jasoko dira, besteak beste, entitatea kontsortziokidearenak diren eta Kontsortzioaren esku utziko diren kudeaketa-egitura guztien xehetasunezko zerrenda, eta egitura horientzako aurreikusi diren berariazko konpromisoak; esate baterako, elementu materialak artatzeko betekizuna, ordainsari mailak errespetatzeko konpromisoa edota kudeaketarako azpiegituren lekualdaketari buruz hitzarmenean erabakitzen diren gainontzeko baldintzak.

Bereziki hiri hondakinen kudeaketarako azpiegiturak lekuz aldatzea aurreikusten denean eta kudeaketa lanetan laguntzeko lankidetzaz hitzarmenak egiten direnean, Kontsortzioak bermatu beharko du mankomunitateetako hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzuak emateko laguntza horretatik ondorioztatzen diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak laguntza jaso duen entitateari egotziko zaizkiola. Era berean, entitate kontsortziatuen artean berdintasunaren printzipioari eutsiz, Kontsortzioak bermatu beharko du kontsortziatutako entitate guztiek era horretako hitzarmenak adosteko eskubide bera izango dutela, bati onartzen zaizkion baldintzak gainerakoentzako baliagarriak izango baitira.

Hitzarmen horiek, kontsortziokide diren mankomunitateen eskaeraz eta ekimenez egingo dira.

Kontsortzioak hiri hondakinen kudeaketan laguntzen duenean, mankomunitate guztiei aldi berean emandako laguntzen tarifak bateratu ahal izateko, kontsortziokide diren mankomunitate guztien erabateko adostasuna beharko da.

Edonola ere, Kontsortzioak ez du mankomunitateekin hiri hondakinen kudeaketan elkarlanean jardungo, ezta gai horren inguruan lagunduko ere, harik eta energia berreskuratuz errausteko planta martxan jartzen denetik sei hilabete igaro arte.

ZORTZIGARRENA.- KONTSORTZIOA ERATU AURREKO JARDUKETAK.

Entitate kontsortziokideek ekitaldi honetan erabaki dute Gipuzkoako Foru Aldundia ahalmentzea Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa Puntualerako proposamena egiteko beharrezkoak diren izapideei ekiteko; hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Debagoiena, Debarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizuna zehaztearren adostutako Lankidetzaren Hitzarmenaren I. eranskinean aurreikusitako aldaketa proposamenari ekiteko, alegia.

BEDERATZIGARRENA.- INDARRALDIA.

Hitzarmen honek indarraldi mugagabea izango du.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA INTERPRETATZEA ETA BETETZEA.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, hitzarmena interpretatzerakoan edo betetzerakoan sor daitezkeen desadostasunak administrazioarekiko auzien epaitegiak erabakiko ditu.

Eta, beren adostasunaren seinale, Hitzarmen hau sinatu dute

I. ERANSKINA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EGINDAKO AZTERLAN ETA JARDUKETAK

Diputatuen Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an onartu zuen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (2002-2016). Orduz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, hiri hondakinekin lotutako azpiegiturak planifikatzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko dagozkion eskumenak erabiliz, segidan aipatuko diren jarduketak burutu ditu mankomunitateekin elkarlanean:

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko sistema informatiko berria garatu eta martxan jartzea.

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra agerian utzi zuen moduan, ez dago lurralde esparru desberdinetako kudeaketan lortutako emaitzak alderatzea ahalbidetzen duen datu homogeneorik. Horrela bada, 2007ko apiriletik aurrera martxan egongo den aplikazio berri honen helburua da mankomunitateen berriazko kudeaketa premiak (fakturazioa, ibilbideak, zerbitzuak eta abar) betetzearekin batera hondakinen sorrera, balorizazioa eta ezabaketari buruzko datu eta azterketa estatistikoak lortzeko aukera emango duen tresna bat garatzea; hau da, bai mankomunitateek eta bai kudeaketa eta plangintza gaietan eskumena duten Lurralde Historiko eta EAEko erakundeek (Kontsortzioa, Foru Aldundia eta Eusko Jurlarritza) behar dituzten datuak eskainiko dituen tresna bat eratzea.

Gipuzkoako hiri hondakinak identifikatzeko lana egitea

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra, 2000. urtean egindako identifikazio lanetan lortutako zabor-osagaiei buruzko datuak hartu zituen abiapuntutzat; hau da, aldika-aldika eguneratu beharrekoak eta, ohiko eskemari jarraituz, sortutako hondakinen kudeaketara bideratutako datuak. Baina, Batasuneko estrategiarekin bat etorritik, Gipuzkoako erakundeek hondakinen prebentzioari eman zioten erabateko lehentasuna; eta horren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sortutako hondakinen identifikazioa, prebentziorako programan aurreikusitako sorburuen ikuspuntutik eguneratu beharra zegoen. Hondakinak identifikatzeko azterlan berri hori 2007ko apirilerako bukatua egongo da. Batetik, aurreko azterlanak baino osaketa-matrize askoz zabalagoa hartuko du, hondakinen sorrera minimizatzea eskatzen duten sorburuak baloratu ahal izateko; baina, aldi berean, oraingo datuak aurreko datuekin alderatzeko aukera emango du, hondakin zati desberdinei buruzko datuak ere jasoko baititu.

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorren informazio eta komunikazio kanpaina (2003-2004-2005-2006-2007)

Diputatuen Kontseiluak emandako Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorren onespren erabakiak, besteak beste, hiri hondakinen kudeaketan erakunde publikoen partaidetza sustatu beharra jasotzen zuen. Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, parte hartzeko hainbat foro garatzeaz gain, hondakinen prebentzio, birziklatze eta konpostatzeari buruzko informazio zein komunikazio kanpaina handiak egin ditu, elkarren segidako lau fasetan, 2003. urtetik hasi eta 2007. urtera bitarte. Baina kanpaina orokor horiez gain, bestelako kanpaina espezifikoak ere egin ditu; esate baterako, hondakin handiak atez ate biltzeari edota etxeetako hondakinak konpostatzeari buruzkoak.

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorren Aurrerapen Dokumentua (2003-2007) egitea

Garapen Iraunkorrerako Departamentuak, Batzar Nagusiek egindako eskaerari erantzunez, Aurrerapen Dokumentua agindu zuen. Agiri horrek, besteak beste, honakoak jasotzen ditu: Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra onartu zenetik sortutako hiri hondakinei buruzko datu eguneratuak, bai sorrera, balorizazio eta ezabaketari buruzkoak, baita hondakinen osaketari buruzkoak ere. Era berean, Europar Batasuneko marko estrategikoan eta juridikoan gertatutako bilakaera eta berrikuntza nagusiak biltzen ditu, hondakinak prebenitzeko, birziklatzeko, konpostatzeko, energia berreskuratuz desegiteko eta zabortegetan ezabatzeko programak bezalaxe. Dokumentu hori 2007ko apirilean aurkeztuko da.

Birziklatze lanak

- Legazpin dagoen ontziak bereizteko eta sailkatzeko plantaren pabilioia egokitzeko eta makineria hobetzeko obren proiektua egin, gauzatu eta martxan jarri da.
- Sasietako mankomunitatearekin bidezko lankidetzaren hitzarmena egin da, Legazpin dagoen ontziak bereizteko eta sailkatzeko plantaren kudeatzeko.
- Zarauzko Garbigunea handitu eta Zumaian era Azpeitian Garbigune berriak eraiki dira.
- “Eraikuntza eta eraiste lanetan sortutako hondakinak. Kudeaketa aukerak, Gipuzkoan” azterlana.

Konpostatze lanak

- Hirietako kimaketa eta lorazaintzako hondakin berdeak xehatu, izpitu eta konpostatzeko zerbitzua kontratatu da. 1999-2005 epealdia.
- “Gipuzkoansortutako hiri hondakinetako materia organiko biodegradagarria konpostatzeko programa” eratu da. “Sorburu handietako eta sorburu berezietako materia organiko biodegradagarriaren guztizko sorrerari buruzko azterlan xehatua” ere jasotzen du.
- Etxeetako konpostatzea: 4.500 konpostagailu banatu, liburuzko argitaratu, prestakuntza eta aholkularitza ikastaroak eman, laginak hartu eta azterketak egin dira.
- Batasun mailako konpostatzearen esperientzia pilotua.
- Materia organikoa bereizita biltzeaz:
 - ✓ Urtean 12.000 tona konpostatzeko gaitasuna izango duen plantaren aurreproiektua.
 - ✓ Udalerrietako hondakinak bereizita biltzearen ondorioz sortutako materia organikoa konpostatzeko planta pilotuaren proiektua (Lapatx).
 - ✓ Lapatxeko konpostatze planta eraikitzea (Urola Erdialdeko mankomunitatearekin hitzarmena).
 - ✓ Giltzaz ixten diren edukiontzia hornitzea, materia organikoa bereizita jasotzeko esperientzia pilotuari ekiteko.
 - ✓ 2007ko komunikazio kanpaina.

Errausketa

- Gipuzkoan sortutako hiri hondakinak tratatzeko sistemaren proiektua egin aurreko azterlana.
- Gipuzkoan sortutako hiri hondakinak tratatzeko sistemaren proiektua egin aurreko azterlana. Transferentzia-estazioak eta garraioa.

- Gipuzkoako hiri hondakinak energia berreskuratuz errausteko plantaren kokagunea aukeratzeko prozesuan aintzat hartu beharreko metodologia, irizpideak eta parametroak, hala lurralde zein ingurumen arlokoak, nola tekniko eta ekonomikoak.
- Gipuzkoako hiri hondakinak energia berreskuratuz errausteko plantaren kokagunea aukeratzeko azterlana.
- Donostian errauste planta bat ezartzean airearen kalitatean izango duen eragina aztertzea.
- Hiri hondakinen tratamendurako plantaren kokapenari buruz Donostiako Udalak egindako proposamen berrien aurretiazko ebaluaketa txostena.
- Zubietako gainaren azterlan sakona, Gipuzkoako hiri hondakinen energia berreskuratzeako plantaren balizko kokagune gisa.
- Zubietako gainean proposatutako kokaguneen azterlan geologiko eta geoteknikoa (2007ko urtarrila).
- Gipuzkoako hiri hondakinen energia berreskuratzeako agertzen ari diren teknologien artea aztertzeako TEVER proiektuan parte hartzea.

Zaborteia

- San Blas zaborteia ixteko eta zigilatzeako obrak.
- Lapatzeko zaborteia egokitzeko .lanak
- San Markoseko zaborteiaren 1. fasea berreskuratzeako eta ixteko proiektua.
- “Gipuzkoako zaborteiak ixteko eta zigilatzeako, eta gerora artatzeko, egin beharko diren inbertsioei erantzuteko finantza premien zenbatespena” aztertzea.
- Gipuzkoako isurketa guneak. 2007-2010 epealdia (2006ko abendua).
- Urtetako zaborteia San Markoseko hondakinak hartu ahal izateko egokitzea (Urola Kostako mankomunitatearekin hitzarmena).

Kontsortzioa

- “Kudeaketarako entitate bakarra zehazteko” azterlana.
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuak eratzea.
- “Gipuzkoako hiri hondakinen bideraketa sarearen kudeaketan tarifek izan dezaketen bilakaera” aztertzea.
- Azpiegiturak kudeatzeko sozietate publikoa diseinatzea.
- Etorkizuneko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren plan ekonomiko eta finantzarioa zenbatetzea.
- “Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.” izena erregistratzea.
- Interneteko “gipuzkoakohondakinak.com (.com, .org, .net, .biz, .info, .es)” domeinua erregistratzea.

“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN” ESTATUTUAK

ARTIKULUEN AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.....	3
1. artikulua.- Eraketa	3
2. artikulua.- Izena eta egoitza	4
3. artikulua.- Legezko izaera	4
4. artikulua.- Jarduteko lurralde esparrua.....	5
5. artikulua.- Antolakuntza eta funtzionamendua.....	5
6. artikulua.- Kontsortzioaren indarraldia.....	5
II. KAPITULUA.- XEDEA ETA ERREGIMEN KURIDIKOA	5
7. artikulua.- Kontsortzioaren xedea.....	5
8. artikulua.- Xedearen garapena	7
9. artikulua.- Jardueraren kudeaketa.....	8
III. KONTSORTZIOAREN GOBERNU ORGANOAK.....	8
10. artikulua.- Egitura organikoa	8
I. ATALA.- BATZAR OROKORRAZ.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
11. artikulua.- Batzar Orokorra	8
12. artikulua.- Batzar Orokorreko kideen izendapena.....	9
13. artikulua.-Batzar Orokorra berritzea.....	10
14. artikulua.- Batzar Orokorraren bilerak.....	10
15. artikulua.- Batzar Orokorraren ahalmenak	11
II. ATALA.- LEHENDAKARITZA ETA LEHENDAKARIORDETZAZ	13
16. artikulua.- Kontsortzioko Lehendakaritza.....	13
17. artikulua.-Lehendakaritzaren ahalmenak	13
18. artikulua.- Kontsortzioko Lehendakariordetza	14
III. ATALA.- IDAZKARITZAZ	14
19. artikulua.- Idazkaritza	¡Error! Marcador no definido.
IV. KAPITULUA.- EKONOMIA, ZERGA ETA KONTRATAZIO ARLOKO ERREGIMENA	15
I. ATALA.- ERREGIMEN EKONOMIKOA.....	15
20. artikulua.- Araudi aplikagarria.....	15
21. artikulua.- Baliabide ekonomiko eta finantzarioak.....	15
22. artikulua.- Kontsortzioaren finantzaketa.....	16
23. artikulua.- Kontsortzioaren ondarea.....	16
24. artikulua.- Aurrekontua onartzea.....	16
25. artikulua.- Kontabilitatea eta finantzen kontrola.....	16
26. artikulua.- Kontsortzioko entitateekiko likidazioa.....	17
27. artikulua.- Aurrekontuaren likidazioa	17
II. ATALA.- ZERGA ERREGIMENA.....	17
28. artikulua.- Tarifen erregimena.....	17
III. ATALA.- KONTRATAZIO ERREGIMENA	18

29. artikulua.- Kontratazio erregimena.....	18
V. KAPITULUA.- ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	17
30. artikulua.- Segimendu eta koordinaziorako batzordeak	18
VI. KAPITULUA.- KONTSORTZIOA ZABALTZEA, BANANTZEA ETA DESEGITEA.....	18
31. artikulua.- Kontsortzioa zabaltzea	18
32. artikulua.- Kontsortzioa banantzea	19
33. artikulua.- Kontsortzioa desegitea	20
34. artikulua.- Kontsortzioa desegiteko prozedura	20
VI. KAPITULUA.- ESTATUTUAK ALDATZEA.....	20
35. artikulua.- Estatutuak aldatzea.....	20
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
AZKEN XEDAPENAK.....	; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN” ESTATUTUAK

Estatutu hauetan aipatzen diren mankomunitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki dute Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzea eta 2002-2016 epealdirako onartuta dagoen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean jasotako xedapenak martxan jartzea, aipatutako hiri hondakinak hobeto kudeatu ahal izateko.

Kontsortzioaren jarduerak, berori bultzatu duten printzipio hauei jarraituko die:

Progresibotasunaren printzipioa, Entitate Publiko honi beronen gizarte xedearekin bat datozen xedeak dituzten bestelako entitate publikoak txertatu ahal izango baitzaizkio.

Koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioa, hiri hondakinak ahalik eta hobekien kudeatzera bideratutako sistema parte-hartzailea izango baita, bertan sartutako entitateen eskumenak uneoro errespetatuz, entitate horien artean irtenbideak ahalbidetzen jardungo duen sistema.

Lurralde kohesioaren printzipioa, halakotzat harturik berdintasun eta elkartasun printzipio oinarritzkoenen sintesia; hau da, lurralde osoan zerbitzu baliokideak emateko helburuak bultzako duen printzipioa, betiere iraunkortasunari, baliabideei eta lurralde jakin batean ezartzeari dagokionez, behar bezalako arrazionaltasuna erakutsiz.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa

1. Segidan aipatuko diren entitateek, beren borondatez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera erabaki dute Gipuzkoan sortutako hiri hondakinak kudeatuko dituen entitate publiko bat eratzea.
 - San Markoseko udal mankomunitatea
 - Debabarrenako eskualde mankomunitatea
 - Sasietako mankomunitatea
 - Debagoienako mankomunitatea
 - Tolosaldeako mankomunitatea
 - Urola Kostako mankomunitatea
 - Urola Erdialdeko mankomunitatea
2. Era berean, honako estatutu hauetan aurreikusitako prozedurarekin bat etorriz, beste entitateak ere atxiki ahal izango zaizkio baldin eta Kontsortzioaren xedearekin bat datozen herri onurako helburuak lortzeko asmoak bultzatzen baditu.

2. artikulua.- Izena eta egoitza

Honetan erazten den entitatearen izena "GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA" izango da eta bere Donostian (Gipuzkoa) izango du egoitza.

Entitatearen egoitza Batzar Orokorraren onespenez aldatu ahal izango da, honako estatu hauek aldatu gabe.

3. artikulua.- Legezko izaera

1. Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko entitate publikoak Kontsortzio izaera izango du; beraz, legezko nortasun propioaren jabe izango da eta jarritako helburuak betetze aldera jarduteko gaitasuna izango du, indarrean dauden xedapenetan eta estatutu hauetan bertan ezarritakoaren arabera.
2. Kontsortzioak honako ahalmenak izango ditu bere eginkizunak betetzeko:
 - a) Arauak ezartzeko eta barne antolakuntzarako ahalmena.
 - b) Finantza eta zerga arloko ahalmena, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan.
 - c) Entitatearen programazioa edo plangintza erabakitzeko ahalmena, baita azpiegiturak kokatzeko eremuak proposatzekoa ere, eremu horretan martxan dauden hirigintza planak baldintzatu gabe.
 - d) Dagozkion ondasunak bere kabuz ikertzeko, mugatzeko eta berreskuratzeko ahalmena.
 - e) Burutzen dituen egintzen legezkoatasun eta eraginkortasun presuntzioa.
 - f) Derrigorrezko exekuziora jotzeko eta zigorrak ezartzeko ahalmena.
 - g) Egintzak eta erabakiak bere kabuz berrikusteko ahalmena.
 - h) Dagozkion ondasunak eta eskubideak bahi-ezinak izatea, legeek aurreikusitako baldintzetan; Ogasun Publikoari indarrean dagoen legeriak kredituetarako onartzen dizkion hobespen, lehentasun eta pribilegioak, eta tokiko erakunde bezala dagozkion gainerako eskubideak.
3. Kontsortzioa lurralde mailako entitateek izapidetutako desjabetze espedienteen onuradun izan daiteke.

Horrelakoetan, Kontsortzioak ordainduko du desjabetutakoei eman beharreko kalte-ordaina.

4. artikulua.- Jarduteko lurralde esparrua

Kontsortzioak, berau osatzen duten mankomunitateen lurraldean garatuko du bere jarduera. Hala eta guztiz ere, aparteko kasuetan ondoko lurraldeetako udal barrutietan ere jardun ahal izango du.

5. artikulua.- Antolakuntza eta funtzionamendua

Kontsortzioaren antolakuntza, funtzionamendua eta lege erregimena honako estatutu hauetan ezarritakoari lotuko zaizkio. Eta, horrez gain, osagarri gisa, honako hauek beteko ditu: Toki Erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritako xedapenak, lege hori garatzen duten Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko xedapenak, tokiko erakundeei aplikatzekoak diren legezko eta erregelamenduzko gainerako xedapenak, hondakinei buruzko 1998ko apirilaren 11ko 10/1998 Legean ezarritakoak eta gai hau erregulatzen duten gainontzeko xedapen sektorialak.

6. artikulua.- Kontsortzioaren indarraldia

Kontsortzioak iraupen eta indarraldi mugagabea izango du. Hala ere, estatutu hauetan ezarritako prozeduraren arabera desegin ahal izango da, baldin eta agiri honetan aipatutako arrazoiak ematen badira.

II. KAPITULUA.- XEDEA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

7. artikulua.- Kontsortzioaren xedea

1. Kontsortzioaren xede nagusia da dagokion lurralde esparruaren barruan bildutako hondakinak kudeatzea, halakotzat hartuta 2002-2016 epealdirako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusita dauden eta kontsortzioko entitate bat baino gehiago zerbitza ditzaketen azpiegiturak sortzeko eta ustiatzeko behar diren jarduera guztiak; besteak beste:
 - “Gerakina” esaten zaion hori, hau da, saihestu, birziklatu edo konpostatu ezin diren hondakinen osatutako zati hori, energia berreskuratuz errausteko planta diseinatu, eraiki eta kudeatzea. Eta, baita planta horren jarduerarekin zuzenean lotuak dauden eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako instalazioak ere; esate baterako: hondakinak enbalatzeko planta, geldialdietan zaborra aldi baterako gordetzeko; zepa heltzeko eta egonkortzeko planta; errauts hegalaria moldatzeko eta inertizatzeoko planta; hiri hondakinak erraustu aurretik tratatzeko planta, eta abar.

- Etxeetan eta sorgune handietan sortu eta bereizita bildutako materia organiko biodegradagarria kudeatzeko beharrezkoak diren konpostatze planten kokalekua, diseinua, eraikuntza eta ustiaketa.
 - Azken tratamenduko instalazioetatik (errausteko eta konpostatzeko plantak) urrun dauden mankomunitateen esparruan beharrezkoak diren hiri hondakinen transferentzia-estazioen kokalekua, diseinua, eraikuntza edota ustiaketa, hondakinen bideraketa sarearekin lotutako prozesu guztietan; baina, betiere, hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa baldintzatu gabe.
 - Hiri hondakinak transferentzia-estazioetatik azken tratamenduko instalazioetara (errausteko eta konpostatzeko plantak) garraiatzea; edo zabortegietara, halakorik denean.
 - Errauste edo konpostatze prozesuetan sortutako hondakinei eta gerakinei (zepak, errauts hegalaria, ...) dagokien tratamendua ematea.
2. Energia berreskuratuz errausteko planta eta konpostatze plantak diseinatu eta eraikitzerakoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Urola Erdialdea, Urola Kosta eta Tolosaldeako mankomunitateen arteko Lankidetzaren Hitzarmenean, Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizunari buruzko hitzarmenean, zehaztutako oinarritzko planteamenduak errespetatu beharko dira.
 3. Kontsorzioak, hala erabakitzen duenean, eskaera luzatzen dioten entitate kontsorziatutako eraikuntzako obra txikietan edota etxeetako konponketen ondorioz sortutako hondakin eta zaborretara hedatu ahal izango du bere jarduera.
 4. Kontsorzioak, hala erabakitzen duenean, beroni dagozkion eskumenen gaineko lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango ditu hiri hondakinak kudeatzen dituzten beste administrazio edo sozietateekin, kudeaketak ahalik eta etekin hoberenak izan ditzan.
 5. Kontsorzioak, Gipuzkoako Hondakinen Hitzarmena Eratzeko Lankidetzaren Hitzarmeneko seigarren eta zazpigarren estipulazioetan ezarritako eskakizunak bete ondoren, hala erabakitzen duenean, eskaera luzatzen dioten entitate kontsorziatuekin lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango ditu, hiri hondakinen kudeaketa lanetan laguntzeko, baldin eta Batzar Orokorrak 15. artikuluan ezarritako gehiengoaz laguntza hori ematea erabakitzen bada. Era berean, udalerriekin ere zuzenean horrelako hitzarmenak egin ahal izango ditu, badin eta Gipuzkoako Hondakinen Hitzarmena Eratzeko Lankidetzaren Hitzarmeneko seigarren estipulazioan aurreikusitako muga gainditzen ez bada. Horrela bada, Kontsorzioaren eta udalen arteko lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izateko, udal horiei dagokien mankomunitatearen oniritzia beharko da; edo bestela, kasuan

kasuko udalerrri hori mankomunitate orotatik kanpo badago, entitate kontsortziatuen erabateko adostasuna beharko da.

Hiri hondakinen kudeaketa lanetan laguntzeko lankidetzak hitzarmenak egiten direnean, Kontsortzioak bermatu beharko du laguntza horretatik ondorioztatzen diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak laguntza jasotzen duen entitateari egotziko zaizkiola. Era berean, entitate kontsortziatuen artean berdintasunaren printzipioari eutsiz, Kontsortzioak bermatu beharko du kontsortziatutako entitate guztiek era horretako hitzarmenak adosteko eskubide bera izango dutela, bati onartzen zaizkion baldintzak gainerakoentzako baliagarriak izango baitira.

Zehazki, aipatutako lankidetzak hitzarmen horien ondorioz, Kontsortzioak bere egiten baditu entitate kontsortziatuen kudeaketa-egiturak, Kontsortzioa Eratzeko Hitzarmeneko zazpigarren estipulazioan ezarritako printzipioak errespetatuko dira.

6. Kontsortzioak, edozein kasutan ere, emandako zerbitzuekin lotutako sentsibilizazio eta konzientziazio kanpainak egiteko eskubidea izango du. Kontsortzioak, hala erabakitzen duenean, hiri hondakinen inguruko sentsibilizazio eta konzientziazio kanpaina orokorrak ere egin ahal izango ditu, baldin eta entitate kontsortziatuek halakorik eskatzen badute.
7. Kontsortzioak, nolana ere, hondakinen kudeaketatik ondorioztatutako produktu eta azpiproduktuak erabili ahal izango ditu, baita prozesu horretan sortutako energia ere. Gainera, nahi izanez gero, ekoizpen horiek merkaturatu ahal izango ditu.

8. artikulua.- Xedea garatzea

Kontsortzioak, bere xedea garatzearren:

1. Kontsortzioaren esku utzitako jarduerak behar bezala kudeatzeak eskatzen dituen inbertsioetarako finantzaketa lortuko du.
2. Hondakinen kudeaketa sarearekin lotutako azpiegiturak sortuko ditu, Kontsortzioaren beraren barruan hala egokituz gero, herritarrei ahalik eta zerbitzurik eraginkorrena ematearren.
3. Jarduerak eman edo egiteagatik ezartzen diren tarifak zehazteaz eta kobratzeaz arduratuko da, jarduera horien kostua zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileei egotzekoak direnean.
4. Hiri hondakinen arloan diharduten entitateak eta kudeaketa jarduerak koordinatzeko sistema bat ezarriko du.
5. Kontsortzioaren esku utzitako jardueretan azpiegitura berriak behar ote diren zehazteko azterlanak egingo ditu.

6. Jarritako xedeak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak gauzatuko ditu.

9. artikulua.- Jardueraren kudeaketa

Kontsortzioak ematen dituen zerbitzuak kudeatzerakoan, Toki Erregimeneko Oinarrien Legeak tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko ezarritako sistemaren bati jarraituko zaio.

III. KAPITULUA.- KONTSORTZIOAREN GOBERNU ORGANOA

10. artikulua.- Egitura organikoa

Kontsortzioa honako gobernu organo hauek osatuko dute:

- Batzar Orokorra
- Lehendakaritza eta Lehendariordetza.

I. ATALA.- BATZAR OROKORRAZ

11. artikulua.- Batzar Orokorra

1. Goreneko gobernu organoa da eta berari dagokio, halaber, garrantzirik handieneko erabakiak eta ebazpenak emateko ahalmena ere.
2. Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundia Batzar Orokorrean ordezkatuta egongo dira; baita gainerako entitate kontsortziatuak ere, halakorik izanez gero.
3. Kontsortzioko kide den tokiko entitate bakoitzari Batzar Orokorrean boto erkatuaz dagokion ordezkaritza, guztizko portzentajearen barruan kalkulatu da, entitate horretako biztanle kopuruari kontsortziatutako entitate guztiek batera hartuta duten biztanle kopuruan dagokion portzentajearen arabera. Eta zenbaki hori zehazteko, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako azken biztanle-zifra ofizialetara joko da, betiere honako estatutu hauetako 12.3 artikuluan aurreikusitako hasierako ordezkaritza kontuan hartuz.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak, edozein kasutan ere, estatutu hauetako 12.3 artikuluan ezarritako ordezkari maila izango du; eta parte hartzen duen organo guztietan ere, portzentaje horri dagokion boto kopurua izango du.

12. artikulua.- Batzar Orokorreko kideen izendapena

1. Kontsortzioko kide diren entitateetako ordezkariak osatuko dute Batzar Orokorra. Batzarrerako izendatzen den kide bakoitzeko ordezkari bat aukeratuko da, titularrak utz lezakeen lekua betetzeko. Ordezkoasuna, edozein kasutan ere, organo elkargokideko kideei dagozkien eginkizun orokorretara mugatuko da; hau da, ordezkoak ezin izango ditu bete presidenteari, presidenteordeari edota ordeztutakoari berari dagozkion berariazko eginkizunak.
2. Kontsortzioko kide den entitate bakoitzak hiru ordezkari izendatuko ditu, Batzarreko ordezkari maila ahalik eta pluralena izango den moduan.
3. Kontsortzioko kide den entitate bakoitzak, Kontsortzioa osatzen duten entitateek izendatutako hiru pertsonak ordezkari izendatuko dute; eta entitate bakoitzak, hasieran behintzat, honako eskala honetan adierazitako boto kopurua bereganatuko du:

ENTITATE KONTSORTZIOKIDEAK	Entitatearen ordezkari maila (%)	Ordezkariei esleitutako boto kopurua		
		1 zk.	2 zk.	3 zk.
Gipuzkoako Foru Aldundia	33	11.0	11.0	11.0
San Markoseko udal mankomunitatea	32	10.8	10.6	10.6
Debarrenako eskualde mankomunitatea	8	2.8	2.6	2.6
Sasietako mankomunitatea	7	2.4	2.3	2.3
Debagoienako mankomunitatea	7	2.4	2.3	2.3
Tolosaldeako mankomunitatea	6	2.0	2.0	2.0
Urola Kostako mankomunitatea	4	1.4	1.3	1.3
Urola Erdiko mankomunitatea	3	1.0	1.0	1.0
GUZTIRA	100			

4. Kontsortzioko kide den entitate bakoitzeko hiru ordezkarietako bakoitzari dagokion boto portzentajea, ordezkariak izendatzen duen entitateari esleitutako boto erkatuaren herena izango da. Kontsortzioko kide den entitate jakin bati esleitutako boto portzentajea hirutan zatitzearen emaitza ez bada zenbaki osoa, kasuan kasuko zenbaki osoa eta lehen hamarrena hartuko dira aintzat; horrela, azkenean, ordezkari bakoitzari dagokion boto portzentajeak hamarren bakarra izango du. Ordezkariei aipatutako eran esleitutako boto portzentajearen eta kontsortzietako entitate horri dagokion portzentajearen arteko hamarren aldea, entitate horrek izendatzen duen ordezkariari esleituko zaio.
5. Tokiko Udaltzaren berritzearen ondorioz kontsortzioko kide diren entitateetako organoak eratu behar diren bakoitzean, eguneratu egingo da mankomunitate bakoitzari esleitutako ordezkari maila. Portzentaje horrek ez du hamarrenik izango.

6. Beren agintaldia amaitu dela eta, tokiko entitateetako ordezkariak dagokien kargua uzten dutenean, Kontsortzioan postu horri berari eutsiko diote, harik eta entitate horiek ordezkari berriak izendatzen dituzten arte.

13. artikulua.- Batzar Orokorra berritzea

1. Tokiko hauteskundeak egin ondoren Kontsortzioko entitateak berritzen direnean, hauek hogeita hamar eguneko epean izendatu beharko dituzte Kontsortzioko Batzar Orokorrean izango dituzten ordezkariak.
2. Bien bitartean, ordezkari berriak izendatu ez badira behintzat, Kontsortzioa osatzen duten entitateetako ordezkari kargu-uztaileek jarraituko dute Batzar Orokorreko kide gisa.

14. artikulua.- Batzar Orokorraren bilerak

1. Batzar Orokorrak honako kideak izango ditu: lehendakari lanak egiten dituen pertsona, lehendakariordetzan diharduena eta kontsortziokide diren entitateetako ordezkariak. Kontsortzioko idazkaria ere Batzar Orokorreko kide izango da, hitza bai baina botoa emateko eskubiderik gabe. Bidezkotzat jotzen diren teknikariak ere bileretara joan daitezke, hitza bai baina botoa emateko eskubiderik gabe.
2. Batzat Orokorra aurrez deialdia eginda bilduko da. Kontsortzioa eratzen denetik hasita lehenengo urtean, lehendakariak hileroko egingo du ohiko biltzarrerako deialdia. Ondorengo urteetan, berriz, hiru hiletik behin. Deialdia gutxienez bost laneguneko aurretiaz egingo da.
3. Aparteko kasuetan, lehendakaritza dagokion pertsonak nahi hainbat bider deitu ahal izango ditu Batzar Orokorraren bilerak, baldin eta hamabost eguneko aurretiaz jakinarazten badu.

Lehendakariak Batzarrerako deialdia egingo du, halaber, kasuan kasuko gobernu organoak onartu ondoren, kontsortziokide diren bi entitatek hala eskatzen dutenean. Horrelakoetan, batzarra eskatu duten entitate kontsortziokideek eskatutako puntuak sartu beharko dira gai-zerrendan. Lehendakaritzak, orduan, batzar hori hurrengo Batzar Arrunta egiteko egunera atzera dezake baina eguneko gai zerrendan, bi entitate kontsortziokideek eskatutako puntuak sartu beharko ditu.

4. Batzar Orokorreko lehendakari lanetan diharduen pertsonak presazkoak diren ez-ohiko bilerak ere dei ditzake, aztertu beharreko gaiak hala agintzen badu. Horrelakorik gertatuz gero, deialdia gutxienez hiru laneguneko aurretiaz egingo du.

Horrelakoetan, Batzar Orokorrak presa horri buruz duen irizpena izango da eguneko gai zerrendaren lehen puntua. Organo horren iritziz, aztertu beharreko gaia ez bada presazkoa, bilera amaitutzat emango da eta ez da erabaki bat bera ere emango.

Bilera egin ahal izango da, halaber, Batzarreko kide guztiak bertan direla aho batez hala erabakitzen badute.

5. Edonola ere, deialdiaren iragarkiak honakoak jaso beharko ditu: bileraren data, lekua, ordua eta aztertu beharreko gai guztien zerrenda. Eguneko gai zerrendan bereziki adierazi gabeko gai buruzko erabakirik ez da adostuko, baldin eta organo horrek, kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko iritziaz alde aurretik premiazkoztat jotako kasu bat ez bada behintzat.
6. Batzarraren bilerak lehen deialdian baliozkoztat emango dira baldin eta batzarkideen erdia eta bat gehiago bertan badaude eta gainera, boto guztien erdia eta bat gehiago osatzen badute. Bigarren deialdirako, berriz, nahikoa izango da boto guztien erdia eta bat osatzen duten batzarkideak bertan izatea, baldin eta gutxienez hiru batzarkide bertaratu badira. Gainera, bilerak baliozkoztat emateko, nahitaez bertan egon behar dute lehendakariak edo lehendakariordeak, eta idazkariak edo beronen legezko ordezkariak.
7. Batzarraren bilerak eta bileretan adostutako erabakiak, idazkariak idatziko duen akta batean jasoko dira. Aktak, onartuta daudenean, Lehendakari-tza lanetan diharduen pertsonak eta idazkariak izenpetu eta dagozkien Akten Liburuan transkribatuko dira.

15. artikulua.- Batzar Orokorraren ahalmenak

1. Batzar Orokorrari honako ahalmen hauek dagozkio:
 - a) Kontsortzioan entitateak onartzea, entitate horietako bakoitzari dagokion boto kopurua zehaztuz, eta kontsortziotik kanpo uztea 32.2 artikuluan aipatutako arrazoiak gertatzen badira.
 - b) Estatutuak aldatzea eta egoitza lekuz aldatzea.
 - c) Kontsortzioa desagitea, 33. artikuluan azaldutako arrazoiak gertatzen badira.
 - d) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea.
 - e) Kontsortzioaren funtzionamendurako erregelamenduak edo barne araudia onartzea; eta, bidezko denean, 30. artikuluan aurreikusitako segimendu eta koordinaziorako batzordeen eraketa, osaketa eta barne erregelamenduak onartzea.

- f) Kontsortzioaren aurrekontua, jarduteko oinarriak eta kontu orokorra onartzea, kontsortzioak burutu beharreko ondare-jarduketak, besterentzeak eta erosketak, bezalaxe.
- g) Kontsortzioko kide diren entitateen ekarpen erregimena erregulatzeko arauak onartzea. Kontsortziokide den entitate bakoitzak egin beharreko ekarpena, edozein kasutan ere, batzarrean dagokion ordezkari mailaren proportzio berean ezarriko da, bigarren xedapen iragankorrean aipatutako kasuetan izan ezik.
- h) Kreditu eragiketak kontratatzea.
- i) Kontsortzioko Lehendakaritza eta Lehendakariordetza lanetarako pertsonak izendatzea eta kargutik kentzea.
- j) Emandako zerbitzu mota bakoitzari aplika dakioken tarifa-erregimena ezartzea.
- k) Estatutu hauetako 7.4, 7.5 eta 7.6 artikuluetan aipatzen diren hiri hondakinen kudeaketaz ardurazten diren beste administrazio edo sozietateekin adostutako lankidetzak akordioak edo hitzarmenak onartzea, betiere Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko Lankidetzak Hitzarmeneko seigarren eta zazpigarren estipulazioetan xedatutako muga errespetatuz.
- l) Kontsortzioaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen batzordeak sortzea.
- m) Langileria eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- n) Jarduera hobeto kudeatzera bideratutako obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, kontratazio horrek honako kopuruak ordaindu beharra dakarrenean: 30.000 € baino gehiago, zerbitzu eta horniduren kasuan; 60.000 € baino gehiago, aholkularitza eta laguntza kasuetan; eta 120.000 € baino gehiago, obren kasuan.
- o) Hiri hondakinak kudeatu eta tratatzeko xedez, Kontsortzioko mankomunitateek egiten dituzten azpiegituren transferentziak onartzea, transferentzia horiek betiere Laugarren Xedapen Iragankorrean eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzetan egingo badira.
- p) Likidazio kontua onartzea, Kontsortzioko kideren batek entitate hori uzten duenean.
- q) Kontsortzioaren interesak defendatzearen, bidezko egintza judicial eta administratiboetara jotzeko erabakia ematea.
- r) Udaletan Udalbatza osoari dagozkion gainerako ahalmenak, hau da, gehiengo bereziaz onartu beharrekoak direnak.

- s) Legeak bereziki udalbatza osoari esleitzen dizkion gainerako ahalmen guztiak.
2. Batzarrak, oro har, bertaratu diren kideen botoen gehiengo soilak onartuko ditu hartutako erabakiak, a), b), c), d), e), f), g), h), i), j), k), o) eta p) puntuei buruzko erabakiak ez badira behintzat, horrelakoetan botoa emateko eskubidea duten kide guztien botoen gehiengo absolutua beharko baita. Gainera, f) puntuan aurreikusitako kasuan izan ezik, arestian aipatu diren balizko horietan denetan entitate kontsortziatuen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da. Ondorio horretarako, entitate kontsortziokide bakoitzak boto bat izango du, eta hori, entitate horretako hiru ordezkarien gehiengoak emandako botoen arabera konputatuko da. Kontsortzioko kide den entitate bateko ordezkarien botoak zenbatuta, berdinketa ondorioztatzen bada, mankomunitatearen botoa abstentzio gisa hartuko da.
3. Artikulu honetan finkatutako gehiengoak entitate kontsortzietuek ahobatez erabakita areagotuko dira, baldin eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeke Lankidetzaren Hiltzarmeneko bigarren, seigarren eta zazpigarren estipulazioetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

II. ATALA.- LEHENDAKARITZA ETA LEHENDAKARIORDETZAZ

16. artikulua.- Kontsortzioko Lehendakaritza

1. Batzar Orokorreko lehendakaria, Kontsortzioko Lehendakaritza lanetan diharduen pertsona bera izango da eta Batzar Orokorrean ordezkaturik dauden entitate kontsortziatuen ordezkarien artean aukeratu da.
2. Lehendakaritza lanak burutuko dituen pertsona aukeratzeko, 15.2 artikuluan zehaztutako gehiengo beharko da nahitaez.
3. Lehendakaritza lanak egiten dituen pertsona bere kargutik kentzeko, izendatzeko behar den gehiengo bera beharko da.
4. Lehendakaritza, udal hauteskunde ondoan entitate kontsortzietuek izendatutako ordezkari berrien partaidetzarekin egiten den lehen batzar arruntean desegingo da, Lehendakaritza berria une horretan izendatuko baita ordezkarien artean.

17. artikulua.- Lehendakaritzaren ahalmenak

Lehendakaritzari honako ahalmen hauek dagozkie:

1. Kontsortzioaren gehieneko ordezkariak erabiltzea, bai barruan bai Kontsortzioaz kanpo.
2. Batzar Orokorren bilkurak antolatzea, gidatzea, bertan behera uztea eta amaitutzat ematea, eztabaidak gidatzea eta, gerta daitezkeen berdinketak, dagokion kalitatezko botoaren bidez erabakitzea.
3. Batzar Orokorren erabakiak argitaratu eta gauzatzea.
4. Kontsortzioaren interesak defendatzearen, bidezko egintza judizial eta administratiboetara jotzeko erabakia ematea, bere eskumeneko gaietan; eta larrialdiko kasua bada, baita Batzarrari dagozkion gaietan ere.
5. Langileak kontratatzeko oinarriak eta langileen izendapena onartzea.

18. artikulua.- Kontsortzioko Lehendakariordetza

1. 15.2 artikuluan arauz ezarritako gehiengoaz aukeratzen den pertsonak burutuko ditu Lehendakariordetzari dagozkion eginkizunak.
2. Lehendakariordetzako lanetan diharduen pertsonak, Lehendakariordetzako eginkizunak betetzen dituen ordezkari du lanpostu hori hutsik dagoenean, titularra kanpoan edo gaixo dagoenean eta lehendakariak eskuordetzen duen guztietan.
3. Lehendakariordetza lanak egiten dituen pertsona bere kargutik kentzeko, izendatzeko behar den gehiengo bera beharko da, eta ordezkaria bilera horretan bertan izendatu beharko da.
4. Lehendakariordetza, udal hauteskundearen ondoren entitate kontsortziatuek izendatutako ordezkari berrien partaidetzarekin egiten den lehen batzar arruntean desegingo da, Lehendakariordetza berria une horretan izendatuko baita ordezkarien artean.
5. Lehendakaria eta lehendakariordea ez dira entitate kontsortziatu bereko ordezkariak izango. Lehendakariaren eta lehendakariordearen karguak batera hutsik geratzen badira, Batzar Orokorrean adinez nagusia den kidea beteko ditu lehendakari lanak, bitarteko gisa; eta lehendakariordearena berriz, adinez hurrengoak, arestian aipatutako salbuespenari eutsiz.

III. ATALA.- IDAZKARITZAZ

19. artikulua.-

Kontsortzioko idazkaria gaikuntza nazionaleko funtzionario bat izango da eta honako eginkizunak izango ditu:

- a) Bileretan parte hartzea, hitzez baina botoa emateko eskubiderik gabe.
- b) Lehendakariaren aginduz Batzarraren bilkuretarako deialdiak egitea eta batzarkideei deialdiaren berri ematea.
- c) Batzarkideen komunikazio egintzak jasotzea, hau da, jakitea dagokion jakinarazpen, datu eskaera, zuzenketa eta gainontzeko idatzi guztien berri izatea.
- d) Aztertu beharreko gaiak bideratzea, bileretako aktak idaztea eta baimentzea.
- e) Egindako kontsulten, emandako irizpenen eta onartutako erabakien ziurtagiriak egitea.
- f) Behar den legezko aholkularitza ematea.
- g) Idazkaritzari berariaz dagozkion ginerako eginkizunak.

IV. KAPITULUA.- EKONOMIA, ZERGA ETA KONTRATAZIO ARLOKO ERREGIMENA

I. ATALA.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

20. artikulua.- Araudi aplikagarria

Gipuzkoako udal ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak eta foru arau hori garatzen duten xedapenek ezarritakoari jarraituz, Kontsortzioaren Ogasuna honako estatutu hauetan aurreikusitako baliabideek osatuko dute.

21. artikulua.- Baliabide ekonomiko eta finantzarioak

Kontsortzioak baliabide ekonomiko eta finantzario hauek izango ditu:

1. Kontsortzioaren ondarea.
2. Entitate kontsortziatuen ekarpenak, ondarezkoak edo dirutan egiten dituztenak.
3. Estatutik, Autonomia Erkidegotik edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik jasotako diru laguntzak.
4. Finantza entitateekin egin daitezkeen kreditu eragiketak.

5. Kontsortzioaren xede diren hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuak emateagatik jasotzen diren sarrerak.
6. Estatutu hauetako 7.4, 7.5 eta 15.k) artikuluetan aipatzen diren lankidetzaz hitzarmenetan jasotako baldintzen ondorioz sortzen diren sarrerak.
7. Hondakinen kudeaketatik ondorioztatutako produktu eta azpiproduktuak merkaturatzeak eragiten dituen sarrerak, baita sortutako energiak eragindakoa ere.
8. Bestelako finantzaketa bideei esker ezin ordaindu izan diren gastuei aurre egiteko entitate kontsortziatuei eska dakizkiekeen beharreko ekarpenak.
9. Legokiokeen beste edozein baliabide.

22. artikulua.- Kontsortzioaren finantzaketa

Kontsortzioa osatzen duten entitateek haren eraketa eta funtzionamendurako beharrezkoak diren ekarpenak ordainduko dituzte Batzar Nagusian duten ordezkaritza portzentajearen arabera, salbuespen bakarra izango da estatutu hauetako bigarren xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan jasotzen den konpromisoa.

23. artikulua.- Kontsortzioaren ondarea

1. Kontsortzioaren ondarearen barruan sartuko dira, bai entitateak bere bizian zehar eskuratzen dituen ondasunak eta baita kontsortzioa osatuko duten entitateek ekartzen dituzten ondasun guztiak ere.
2. Kontsortzioaren titularitateko ondasunak, jabari publikoko ondasunak edota ondarezkoak izan daitezke. Zerbitzu publikoarekiko atxikipena galtzen duten ondasunak, ondarezkoak izatera pasako dira.
3. Artikulu honetan erregulatu den guztiak, udal korporazioen ondasunak erregulatu dituen araudian ezarritako xedapenak bete beharko ditu.

24. artikulua.- Aurrekontua onartzea

Aurrekontua Batzar Orokorrak onartuko du, urtero, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, ezarritako epe eta baldintzetan.

25. artikulua.- Kontabilitatea eta finantzen kontrola

1. Kontsortzioak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, aurreikusitako printzipio eta arauari jarraituz eramango du kontabilitatea eta eta er aberean eratu eta erakutsiko ditu bere kontuak.
2. Kontsortzioko kontuen kanpoko fiskalizazioa Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku geratuko da.

26. artikulua.- Kontsortzioko entitateekiko likidazioa

Kontsortzioak eta beronen kide diren entitateek, aldika-aldika beren ekonomia egoera erregularizatuko dute, bakoitzak ematen dituen zerbitzuen arabera.

27. artikulua.- Aurrekontuaren likidazioa.

Ekitaldi bateko emaitzak saldo positiboak erakutsiko balitu, kopuru horiek soil-soilik Kontsortzioaren jarduketa finantzatzera eta emandako zerbitzuak hobetzera bideratuko lirateke.

Edonola ere, tarifen zenbatekoa kudeaketaren benetako kostuari lotzen saiatu behar da beti.

II. ATALA.- ZERGA ERREGIMENA

28. artikulua.- Tarifen erregimena

1. Kontsortzioak, urtero, emandako zerbitzuei dagozkien tarifak ezarriko ditu eta hauek kudeatzeaz, likidatzeaz eta kobratzeaz arduratuko da.
2. Zerbitzu mota bakoitzak berdintasunezko tarifa homogeneoa izango du Kontsortzioko kide diren entitate guztientzat. Hala eta guztiz ere, tarifa desberdinak aplikatu ahal izango dira Kontsortzioko kide den tokiko entitate bakoitzak hondakinen kudeaketan erabiltzen duen iraunkortasun mailaren arabera.
3. Tarifak ezartzerakoan, sarrerekin gastu guztiak ordaintzeko modua bilatuko da, baita Kontsortzioak zerbitzua emateko behar dituen azpiegitura berriak egiteak eragiten dituenak ere. Azpiegituraren kostutzat joko da Gipuzkoako Foru Aldundiak bigarren xedapen iragankorraren indarrez egiten dituen ekarpenen zenbatekoa kenduta geratzen dena.

III. ATALA.- KONTRATAZIO ERREGIMENA

29. artikulua.- Kontratazio erregimena

Kontsortzioak egiten dituen kontratuek Herri Administrazioetako Kontratuen Legeak ezarritakoa eta gai honetan aplikagarria den gainerako araudia beteko dute.

V. KAPITULUA.- ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA.

30. artikulua.- Segimendu eta koordinaziorako batzordeak.

Kontsortzioaren eta bere kide diren entitateen jarduerak koordinatu, segitu era kontrolatzeko batzordeak eratuko dira, baldin eta Batzarrak bidezkotzat jotzen baditu.

Batzorde horien eraketa eta osaketa Batzarrak onartuko du, beren funtzionamendua erregulatzeko barne erregimena bezalaxe. Era berean, Batzarrak erabakiko du batzordeen txostenak ezinbestekotzat joko diren kasuak.

VI. KAPITULUA.- KONTSORTZIOA ZABALTZEA, BANANTZEA ETA DESEGITEA

31. artikulua.- Kontsortzioa zabaltzea

estatu hauetako azalpen zatian aipatu den progresibotasun printzipioarekin bat etorriz, etorkizunean Kontsortzioan entitate berriak onartzeko, honako prozedura honi jarraitu beharko zaio:

1. Entitate interesdunak, aldez aurretik, Kontsortzioan txertatzeko eskaera luzatzeko adostasuna erakutsi beharko du, erabakiak adosteko dagokion erregimenaren arabera.
2. Kontsortzioak, Batzar Orokorraren bidez, eskaera martxan jarri eta kasuan kasuko entitate hori Kontsortzioan sartzea bideragarria den ala ez erabakiko du. Eta, bideragarritzat jotzen badu, txertatze horretarako baldintzak adieraziko ditu.
3. Erabakia txertaketaren aldekoa bada, berorren berri emango zaio entitate interesdunari eta honek, Kontsortzioaren estatutuak onartu, bertan izango

duen ordezkariak izendatu eta, bidezko bada, Kontsorzioari emango dizkion ondasunak zehaztuko ditu.

4. Izapide hori bete ondoren, Kontsortzioko Batzar Orokorrak kide berria Kontsortzioan sartzea onartuko du 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz, eta estatutuak aldatzeko prozesua jarriko du martxan.

32. artikulua.- Kontsortzioa banantzea

1. Kontsortzioko kide den entitate batek bere borondatez Kontsortzioa utzi nahi izanez gero, nahikoa izango du erabaki hori balioz hartu eta Kontsortzioari jakinaraztea. Jakinarazpen hori jaso ondoren, entitate kontsortziotik bananduztat joko da eta bi entitateen arteko harreman ekonomikoak likidatuko dira, honako prozedura honi jarraituz:

- a) Kontsortzioaren eta bere kide izandako entitatearen arteko egoera ekonomikoa erregularizatuko da.
- b) Bananketak eragindako gastuak banantzerara doan entitateak ordainduko ditu, Kontsortzioak bereganatutako pasibotik entitate horri dagokion zatia bezalaxe.
- c) Likidazio kontua, Batzar Orokorreko kideen gehiengo absolutuak onartu beharko du.

2. Gainera, Kontsortzioko kide den entitate batek estatutuetako arauen edo indarrean dauden legeen urraketa larria egiten badu, edota Batzar Orokorrak 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz hala adosten badu, entitate horren nahitaezko bananketa erabaki dezake, honako jarduketa hauek izapidetu ondoren: Lehendakariak idatzi bat zuzenduko dio kasuan kasuko entitate horri, bere defentsarako bidezkotzat jotzen dituen alegazioak jar ditzan edo bestela, arau-haustea ekarri duen konpromisoa bere gain har dezan aginduz. Idatzi horretan berariaz ohartaraziko dio, agindutakoa bete ezean dagokion Kontsortziokide izaera behin-behinekoz etengo zaiola, behin betiko bananketaren aurreko urrats gisa.

3. Azkenik, kontsortziazatutako edozein entitate desegiteak nahitaezko bananketa ekarriko du; baita entitate horretan gerta daitekeen estatutu aldaketak ere, baldin eta aldaketa horren ondorioz, Kontsortzioaren xedea eta entitate jakin horren eskumenak bateraezinak bihurtzen badira.

4. Bananketa hori, edozein kasutan ere, Kontsortzioari dagozkion eskumenak errespetatuz gauzatuko da. Dena den, udalerrri bat bere mankomunitatetik banantzeak ez du aldatuko mankomunitate horren egoera.

Entitate bat Kontsortziotik bananduz gero, Kontsortzioak egindako inbertsioetan eta azpiegituretan zegozkiokeen eskubide guztiak galduko ditu.

33. artikulua.- Kontsortzioa desegitea

Kontsortzioa honako arrazoi hauetakoren baten ondorioz desegin daiteke:

1. Finkatutako xedeak betetzea ezinezkoa delako.
2. Legeak hala erabaki duelako edota herri onuraren aurkakoak diren zirkunstantziak gertatu direlako.
3. Batzar Orokorrak 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz hala erabaki duelako.

34. artikulua.- Desegiteko prozedura

Kontsortzioa desegiteko honako prozedurari jarraituko zaio:

1. Batzar Orokorrak batzorde likidatzailea izendatuko du banantzeko erabakia onartzen denetik hasi eta 30 eguneko epean. Batzorde hori, Lehendakaritza lanetan diharduen pertsonak eta hiru batzarkidek osatuko dute.
2. Batzorde likidatzaileak gehienez hiru hilabeteko epea izango du Kontsortzioko ondasun eta eskubideen inbentarioa egiteko, entitate honek izan ditzakeen baliabide, zama eta zorrak adieraziz. Era berean, langileen zerrenda egingo du.
3. Batzorde likidatzaileak, inbentarioa egin ondoren, Kontsortzioaren ondasunak, eskubideak eta zorrak, langileen lan izaerakoak ere barruan hartuta, entitate kontsortziatuen artean banatzeko eta integratzeko proposamena egingo dio Batzar Orokorrari. Eta xede horrekin, burutu beharreko jarduketan egutegia egingo du batzordeak.
4. Likidaziorako proposamena, Batzar Orokorreko legezko kideen gehiengo absolutuak onartu beharko du.

VI. KAPITULUA.- ESTATUTUAK ALDATZEA

35. artikulua.- Estatutuak aldatzea

1. Kontsortzioko estatutuak Lehendakaritza lanetan diharduen pertsonaren eskaeraz alda daitezke; edo bestela, Batzar Orokorreko kideen gutxienez heren baten eskaeraz.
2. Aurreko atalean aipatutako ekimena onartu eta Batzar Orokorra ez-ohiko bilkuran eratu ondoren, jasotako proposamenen arabera estatutuak

aldatzeko proiektua onartuko da, betiere eskatu behar izan diren txostenek diotena aintzat hartuz. Proiektu horrek entitate kontsortziokideen onespena beharko du.

3. Estatutu berrien proiektua, entitate kontsortziokideek onartu ondoren, Kontsortzioko Batzar Orokorrak onartu beharko du 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz.
4. Estatutuen aldaketarako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, eratzeko unean eransten zaizkion entitateekin ekingo dio bere jarduerari; baina, kide berriak txertatu ahala, jarduketaren lurralde esparrua zabaldu ahal izango du. Kontsortzioaren kide egiteak, batetik, honako estatutu hauek onartzea dakar berarekin; eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Urola Erdialdea, Urola Kosta eta Tolosaldea mankomunitateek Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko xedez adostutako Lankidetzak Hitzarmenean ezarritako xedapenak onartzea.

Bigarrena.- Estatutuak aldatu beharrik gabe Kontsortzioan entitate berriak sar daitezkeela pentsatuz, ordezkaturako administrazio bakoitzak hiru ordezkari izango ditu Batzar Orokorrean, honek zehazten duen boto portzentajearekin. Administrazio horrek titularren ordezkariak ere izendatuko ditu.

Hirugarrena.- Hondakinak kudeatzeko azpiegitura jakin batzuek, esate baterako transferentzia-estazioek,aldi berean hondakinen bideraketa sarea eta hondakinen bilketa kudeatzeko zerbitzua ematen badute, azpiegituraren titular den entitatearen eta azpiegitura hori erabiltzen duen entitatearen arteko Lankidetzak Hitzarmen bat bultzatuko da. Hitzarmen hori, entitateek elkarren eskumenak errespetatuko dituzten moduan eta bakoitzari dagokion kudeaketarako independentzia bermatuko den eran egingo da, azpiegitura horrek biden zerginak betetzeko behar hainbateko gaitasuna duela ziurtatuz. Azpiegitura horren jabaria, dena den, Kontsortzioarena edota, hondakinen bilketa zerbitzua egiten duen entitatearena izan daiteke, kasuak kasu.

Laugarrena.- Kontsortzioak barne araudiko erregelamendu bat onartuko du eta horrek, estatutu hauetako 7. artikuluan adierazitako xedeak ezezik, hiri hondakinen bideraketa sareko transferentzia, tratamendu eta ezabatze zerbitzuak erregulatuko dituen Ordenantza Erregulatzailerik bat jasoko du bere baitan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Eraketa egintzara bertaratzen diren entitateek osatuko duten Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, araudi iragankor honi jarraituz jardungo du:

1. Kontsortzioan kide berriak sartzeak ez du ekarriko, nahitaez, Kontsortzioko Lehendakaritza eta Lehendakariordetzako karguak aldatu beharra. Aitzitik, Batzar Orokorra ugaritzen joango da Kontsortzioari kide berriak eransten zaizkion heinean.
2. Ekarpenen erregimena zehaztuko duten arauak Batzarrean erabakiko dira eta hori, Kontsortziokideek osatuko dute; beraz, Kontsortzioari gerora eransten zaizkion entitateek ere betekizun horiek bere gain hartu beharko dituzte.
3. Kontsortziokide den entitate bakoitzak egin beharreko ekarpena, edozein kasutan ere, batzarrean dagokion ordezkaritza mailaren proportzio berean ezarriko da, bigarren xedapen iragankorrean aipatutako kasuetan izan ezik.
4. Kontsortzioari entitate berriak erantsi arren, eta kide berri horiek egiten dituzten ekarpenak egiten dituztela ere, ekitaldi jakin baterako onartzen diren aurrekontuek eta zerbitzu bakoitzarentzako ezarritako tarifek indarrean jarraituko dute.

Bigarrena.- Kontsortzioak indarrean dirauen bitartean kide bakoitzak diruz edo beste nolabait egiten dituen ekarpen guztiak Kontsortzioaren titularitatepean geratuko dira; beraz, Kontsortzioa uzteak kide horri ez dio emango egindako ekarpenak itzultzeko eskubiderik.

Zehazki, Batzarrak onartzen duen ekarpen erregimenak errespetatu egin beharko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Urola Erdialdea, Urola Kosta eta Tolosaldea mankomunitateek Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko xedez adostutako Lankidetzaren Hitzarmenean ezarritako irizpideak; izan ere, hitzarmen horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekonomikoki lagunduko du errauste plantaren, konpostatze planten, transferentzia-estazioen eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako gainerako azpiegituren eraikuntzan. Ekarpen horiek, Kontsortzioko gobernu organoetan botoen bidez entitateek duten ordezkaritza portzentajearen arabera izango dira, Kontsortzioaren estatutuetan aurreikus daitezkeen bestelako baliabide ekonomiko eta finantzario osagarriak baldintzatu gabe.

Hirugarrena.- Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek, hiri hondakinen biderakera sarearen kudeaketa zerbitzuak Kontsortzioarekin koordinatuz gauzatu dituzte; eta horretarako, mankomunitate bakoitzak Integratzeko Plan Tekniko bat egingo du Kontsortzioarekin.

Laugarrena.- Hiri hondakinak kudeatu eta tratatzeko xedez, Kontsortzioko mankomunitateek Kontsortzioari azpiegiturak transferitu ahal izateko, bi entitateek beren adostasuna erakutsi beharko dute aldez aurretik. Kontsortzioaren kasuan, 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoak onartu beharko du eta erabaki horrek honako elementuak jasoko ditu gutxienez:

- a) Azpiegituraren egoerari buruzko txosten tekniko eta ekonomikoa: erabilgarritasuna, gorabehera tekniko, administratibo edo juridikoen ondorioz sor daitezkeen erabilpen mugak, transferitu beharreko ondasunen balorazio eguneratua, eta abar.
- b) Integratzeko Plan Teknikoa, jarduerak mankomunitatearen eta Kontsortzioaren artean banatzeko.
- c) Kontsortzioari ematen zaizkion azpiegiturak ekarpena egiten duen entitatearen inbentariarik kendu eta Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kontsortzioaren inbentarioan sartzea.

Transferitu daitezkeen azpiegiturretatik kanpo geratuko dira, espreski, Gipuzkoan kokaturik dauden hiri hondakinen zabortegiak, horiek 2009ko uztailaren 16an itxiko baitira behin betiko, egun horretan betiko amaitutzat emango baitira zabortegi horietan egiten diren isurketa jarduketak guztiak. Ondoren, berehala, zabortegi horien kudeaketaz arduratzen diren mankomunitateek zabortegiak behin betiko itxi eta hala mantenduko dituzte gutxienez 30 urtez, hori agintzen baitute bai Fondoak eta baita hondakinak zabortegietan ezabatzeari buruzko 2001eko abenduaren 27ko 1.471/01 Errege Dekretuko hainbat betekizunek ere.

Zehazki, azpiegituren transferentziak transferentzia-estazioetan eragiten badu, mankomunitate guztiek tratamendu berdina jasoko dutela bermatu beharko da; eta, estazio horien eraikuntza gastuak beren baliabide propioez ordaindu dituzten mankomunitateei, xede horretarako erabilitako kopuruak berreskuratzeko eskubidea aitortuko zaie.

Azpiegitura bat lagatzeak ez du ekarriko, inondik ere, Kontsortzioak eratu gabeko lan harremanetatik etorritako langile edota erantzukizunen transferentziarik. Izan ere, azpiegitura lagatzen duen entitate baten menpekoak izan diren langileen lan arloko edozein erantzukizun Kontsortzioaren esku uzteko, hori berariaz adierazten duen idatzia beharko da ezinbestez.

Bosgarrena.- Dena den, 7. artikuluan hiri hondakinen bideraketa kudeatzeari buruz ezarritakoa horrela izanik ere, Sasieta, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek, hurrenez hurren Sasieta, Lapatx eta Urtetako zabortegiak kudeatzeko eskumen eksklusiboak orain arte bezala mantenduko dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateen artean, Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizuna finkatzeko xedez adostutako Lankidetzaren Hitzarmenean zehaztutako baldintzetan.

Era berean, hiri hondakinak Sasieta, Lapatx eta Urtetako zabortegetara garraiatzeari dagokionez, mankomunitate guztiek beren eskumenak mantenduko dituzte.

Seigarrena.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko Lankidetz Hitzarmena izenpetu ondoren, 15-l artikuluan aurreikusitako batzordeetako bat eratuko da. Batzorde horrek Kontsortzioko lehendakaria izango du buru eta honez gain, Kontsortzioko lehendakariordea, eta entitate hau osatzen duten mankomunitateetako lehendakariak izango ditu batzordekide eta behar izanez gero, Garapen Iraunkorrerako diputatua. Batzorde horren helburua izango da, Kontsortzioa kudeatzeko egiturak sortu arte lehendakariari erabakiak ematen laguntzea. Batzordeak urtebeteko iraupena izango du baina indarraldi hori luzatu ahal izango da, baldin eta Batzarrak, Estatutueta 15.1-l artikuluan ezarritako erabateko gehiengoaz hala erabakitzen badu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Estatutu hauetan aurreikusi gabeko guztian eta estatutueta arauak interpretatzeari dagokionez, Tokiko Erregimeneko legeria beteko da, Kontsortzioaren xedearekin lotutako foru, erkidego, estatu edota Europa mailako arau guztiak bezalaxe.

Bigarrena.- Berariaz xedatzen da Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eraketarako Lankidetz Hitzarmenean, bigarren, seigarren eta zazpigarren estipulazioetan araututako gaietan, zehazten diren eraketa baldintzak gainditzten edo aldatzen dituzten estatutuen aldaketak egiteko, kontsortziatutako entitate guztien ahobatezko akordioa beharko dela, entitate bakoitzak bere Batzarrean onartuta Legeak agindutako gehiengo bitartez.-

Hirugarrena.- Kontsortzioa benetan eratzeko, honako apartatu hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

- a) Estatutu hauek, entitate interesdunen hasierako onespina jaso ondoren, jendaurrean jarriko dira ikusgai hilabetez.
- b) Ikusgai egondako epe horretan erreklamaziorik jaso ezean, estatutuak onartutzat joko dira. Bestela, aurkeztutako alegazio edo erreklamazioak erabakitzeko eta estatutuak behin betiko onartzeko behar diren akordioak adostuko dira.
- c) Tazituki edo espreski honako estatu hauek behin betiko onartu dituzten entitateek egintza bakar batean eratuko dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Kontsortzioa.
- d) Kontsortzioko lehendakaria eta lehendakariordea eraketa-ekitaldi horretan izendatuko dira.

- e) Eraketa-erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; eta Gipuzkoako Tokiko Erakundeen Foru Erregistroan inskribatuko da, estatutu hauekin batera.